

GEP Goierri taldea 09ko Herri Kirol topaketetako irabazlea

2009/05/18

Maiatzak 15 ostiralean, goizeko 8:00 abiatu ziren Eskoriatza, Arrasate eta Goierriko kanpusetik 34 ikasle 09ko Herri Kiroletako topagunean parte hartzeko. Txapelketa 10:00 hasten zen Donostiako Atano III pilotalekuan. Aurretik Herri Kiroletako hamaika proba eta irabazleentzat 6000€ko bidai bat sari bezala.

Ingudea, toka, egur bilketa, soka tira, arrauna eta auzo lana (lokotsak, saku eramatea eta txingak) izan ziren probak, eta MUko hiru taldeen artean, emaitza erabaki zen. Eguerdiko ordu bata aldera jakin ziren emaitzak, GEP Goierri taldeak garaipena lortuz eta HUHEZIKo bi taldek 2. eta 3. sailkatu zirelarik.

Mila esker denoi parte hartzeagatik.

